

08/2014 UDALEKO OSOKO BILKURA

2014KO AZAROAREN 14EAN IZANDAKO OHIKANPOKO ETA URGENTZIAZKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Izaskun Jáuregui Saizar
Aitor Gurrutxaga Aranzasti
Aratz Luisa Urkola
Maialen San Sebastian Kortajarena
Kepa De la Iglesia Sánchez
M^a Carmen Egurza Salaberria

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2014ko azaroaren 14ean goizeko hamaika terdiak izanik, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohikanpoko eta urgentziazko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; Josune Eizmendi Manterola eta Mikel Ayerbe Gallurralde ezin etorria adierazi dute lana dela medio, eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- BILKURA PRESAKOTZAT JOTZEA

Alkate-Lehendakari jaunak, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 b) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79. artikuluan diotena bete nahian, bilera presakotzat izendatzea bozketara eraman dute, eta aho batez onetsirik geratzen da.

2.- LASARBE 1.EKO LOKALAK KULTUR GUNE GISA EGOKITZEKO LANEN ESLEIPENA: ESPEDIENTEA ONARTU ETA LIZITAZIOA ABIARAZTEA.

Anoetako Udalaren eta Etorlur, Gipuzkoako Lurra Sozietate Anonimo Unipertsonalaren (gaur egun Itten, herriekin lan egiten SA Foru Sozietatea izena du) arteko Esparru Hitzarmena aplikatuz Itten, herriekin lan egiten SA Foru Sozietatearen taldeak idatzitako “Lasarbe kaleko udal-lokal baten kultura-gunerako egokitzapena” proiektua ikusirik.

Exekuzio-aurrekontua, BEZ gabe, 187.838,56 eurokoa dela eta honela xehatzen dela ikusirik:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua..... 177.687,86 €, BEZ gabe
- Fancoil-a hornitzeko aurrekontua..... 10.150,70 €, BEZ gabe
(VI. kapituluan xehatzen da)

Administrazio Klausula Berezien Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria, fiskalizazio ekonomikoaren txostena eta txosten juridikoa ikusirik.

Aipatutako proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren diru-laguntza jaso duela ikusirik, **Urgentziazko Izapidetze**-txostena egin behar da eskatutako dokumentazioa emandako diru-laguntza kobratu ahal izateko epean frogatzeko.

Alkate jaunak hitza hartu eta txostenaren edukia eta hitzarmen-proposamena azaldu ditu.

PNV alderdi politikoko zinegotzia eta bozeramailea den Kepa De la Iglesia Sanchez jaunak hitza hartu du eta bozketan abstenitu egingo direla adierazi du, proiektuaren (ez dute ikusi) eta txostenaren edukia plenora iritsi arte ezagutu ez dutelako, hain zuzen.

Alkate eta lehendakari jaunak aurkeztutako proposamenaren bozketa egin du eta jarraian adierazten diren akordioak onartzea erabaki dute **aldeko BOST boto** (Bildu alderdi politikoaren aldetik) eta **BI abstentzio** (PNV alderdi politikoaren aldetik) izan direla kontuan hartuta:

Bat.- Itten, herriekin lan egiten SA Foru Sozietatearen taldeak idatzi duen eta BEZ barne 227.248,66 euroko exekuzio-aurrekontua duen “Lasarbe kaleko udal-lokal baten kulturagunerako egokitzapena” proiektua onartzea.

Bi.- Kontratazioan bete beharko diren Administrazio Klausula Berezien Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria barne hartzen dituen proiektu horretarako lanen kontratazio-txostena onestea.

Hiru.- BEZ aintzat hartu gabe 177.687,86 euroko lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari dagokion gastua onartzea.

Lau.- Publizitaterik gabeko esleipenerako Prozedura Negoziatua abiaraztea.

Bost.- Izapidetze-txostena urgentetzat jotzea.

Sei.- Urgentziazko Prozedura horretan, honako enpresa hauei beren lizitazioak aurkeztu ditzatela gonbidatzea:

- Aburuza SA Eraikuntzak

- Ayerbe Eraikuntzak
- Promoland
- Goitu Eraikuntzak
- Uzturpe

Zazpi.- BPG enpresa lanen exekuzio-faseko segurtasun-koordinatzaile gisa izendatzea 2.178,00 euroren truke, BEZ barne.

Zortzi.- Paloma Martinez Goñi arkitektoaren erantzukizun zibileko aseguru-primari dagokion 687,72 euroko (BEZ barne) gastua onartzea, hura izango baita lanen exekuzio-zuzendaria.

Bederatzi.- ALIRI ARTEX SLP enpresari jardueraren txostena eta egokitzapen-lan osagarrien proiektua idaztean balorazio- eta laguntza-lanak egiteko esleipena onestea 3.388,00 euroren truke, BEZ barne.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, eguerdiko hamabiak direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.